



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

CPEIPS ORERETA HLBHIP

Ikastetxearen kodea:

012357

Data:

2023/03/01





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

CPEIPS ORERETA HLBHIP Errenteriako ikastetxe bat da, Donostiatik 7 kilometroetara dagoena. Oartzualdeako eskualdean dago, Oartzunekin, Pasaiarekin eta Lezorekin batera, Pasaiako badiatik oso gertu, eta eskualde-burua da.

Udalerriak 31 km² ditu, eta 40.000 biztanle inguru zituen 2019. urtean, Gipuzkoako herri jendetsuenetan hirugarrena da, Donostia eta Irunen atzetik, bereziki 1960. hamarkadaz geroztik, Estatu espainiarreko hainbat eskualdetatik izandako immigrazioa dela eta.

Ikastola, herrian dagoen maila sozioekonomikoaren isla da; eta familia gehienak ISEK ertaineko mailan kokatzen dira.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Gure ikasleek Chromebook eramangarriak erabiltzen dituzte LHTik hasi eta DBH amaitu artean. LH-n 1. eta 5. maila artean, Ikastolaren gailuak dituzte erabilgarri mailaka edo gelaka jarrita ditugun armairuetan. Behin LH 6n daudenean aldiz euren eramangarriak erosten dituzte eta DBH4 bukatu artean hauekin dihardute.

Irakasle bakoitzak bere Chromebook eramangarria du bere lanak burutzeko eta lanerako gailu pertsonal bezala erabili behar du. Gailu hau da ikasgelan klaseak emateko erabiliko duena ere.

Irakasle konkretu batzuen kasuan (bere lanak horrela eskatzen duelako) eta administrazioko langileen kasuan Windows ordenagailuak darabiltzagu. Ordenagailu hauek, Active Directory erabiliz kudeatzen ditugu.

Ikasgela guztietan proiektoreak eta bozgorailuak ditugu instalatuak, hasi HH2tik eta DBHraino. Hainbat espazio komunean ere, multimedia aretoak, erabilera anitzeko gelak edo bilera gela batzuetan ere esaterako, halako instalazioa dugu denen eskuragarri.

3Dko 2 inprimagailu ditugu ikasleek behar dituztenerako.

Ikastolaren eguneroko funtzionamendua bermatzeko zerbitzari gela bat ere badugu. Bertan, hainbat zerbitzari ditugu, Windows zein Linux, eta Active Directory, DNS, GLPI bidezko intzidentzien kudeaketa, inprimagailuen zerbitzua edo segurtasun kopiak egiteko erabiltzen ditugu.

Interneterako konexiorako Ruckus APak eta Fortigate Firewall bat erabiltzen ari gara. Egun WIFI sarea 3 tan banatzen dugu: langileen wifia, ikasleena eta gonbidatuena. Movistarreko zuntz optikoa kontratatuta 1GBeko abiadurarekin irteten gara sarera. Ethernetko sare instalazioa badugun arren, gaur egun, bere rabilera erabat gutxiagotua daukagu. Makina finko batzuek eta inprimagailuak bezalako azpiegiturek bakarrik erabiltzen dituzte sare hauek. Gainerakoan, egunerokoan darabilzkigun eramangarri guztaik WIFI sareetara konektatzen dira.

Sarea modu independentean sartzten bada ere gure eraikin batzuetara (Añabitarte, Lino eta Esmalteria) ondoren VPN bidez konektatuak ditugu eraikin hauek eta Añabitarteko eraikin multzoa zuntz optiko bidezko lotura zuzen batez egina daukagu.

Hezkuntza kudeaketarako INIKA plataforma erabiltzen dugu eta ikasleekin liburu digitalak kudeatzeko berriz Saioka. Erreminta hauekin kudeatzen ditugu administrazio ekonomikoa ez den ia guztia.

Kudeaketa dokumentalerako, CPEIPS ORERETA HLBHIPk, Nextcloudekin sortutako plataforma propioa du. Hau kudeatzen Talaio enpresak laguntzen digu.

Mantenurako, IKT teknikari propioa dugu. Egunean zehar konponketak burutu ezin baditugu, lanak duen zailtasuna delako, edo

gelaren funtzionamendua ez eteteko, DUOK enpresarekin mantenu kontratua dugu. Hauekin egiten ditugu sare administrazio lan nagusiak ere.

Aurreikusten diren mantenu lanak eta ekipo berritzeak urteko IKT planean aztertzen dituzte IKT teknikariak eta IKT mintegiak, ondoren, zuzendaritzari aurkezten zaizkio.

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Ikastolaren Plan Digital berri honen diagnostikoaren lehen helburu bat, egungo irakaskuntzan berrikuntza digitalekiko dagoen jarrera aztertzea eta ulertzea izan beharko du. Jakin badakigu, gizartean aldaketak eta berrikuntzak etengabe gertatzen ari direla, baina horiek hezkuntzara egokitu behar direla, etorkizuneko herritarrek izango diren ikasleak hezteko baita irakasleentzako ere. Zeregin nagusia, datoen aldaketak datozela.

Azken finean, aldaketa horiek guztiek eragina dute materiala, edukiak, antolamendua... bezalako esparruetan, eta aitortu behar dugu horietara egokitzeko irakasleek esfortzu gehigarria egin behar dutela. Alferrikakoak dira berrikuntza horiek irakasle-taldea aldaketa horietara egokitzen ez bada, horrela nekez landuko baitituzte ikasleekin landu beharrekoak. Eta aipatutako berrikuntza digitalekiko ikuspuntua oso aldakorra da irakasleen artean: batzuk beharrezkoak ez direla eta kaltegarriak direla pentsatzen duten bitartean, beste batzuek lagungarriak eta aberatsak direla uste baitute. Kontraesankorra gerta daiteke haurren eguneroko bizimodua baldintzatzen duten berrikuntzekiko jarrera ezkorra eta pasiboa izatea, eta esan bezala, horren zergatiaren inguruko gogoeta kritikoa egitea da gure lanaren helburu nagusi bat.

Gizartean izan den iraultza (teknologiko) eraldakorrenetarikoa baten testigu gara; une oro aldatzen eta berreraikitzen den gizarte baten iraultzaren testigu, eta sarri ez espresuki ongi planifikatua. Espazioa globalizatuz eta aldi berean deslokalizatuz doa; halatan, mikroistorio, mikrokultura eta mikrosegundoen aroa sortu da, mikrolanetarako eta big data ekonomiarako sarbidea emango diguna.

Bien bitartean, transformazio multidimentsional bat gertatu da, globala, trans-historikoa eta multimodala. Eta azpimarratzekoa da horrek guztiak etorkizuneko gizartean gain eta hezkuntza izan duen eta izango duen eragina. Izan ere, oin digitalen gaineko berregituraketa batera zuzentzen bada gizartea, etorkizuneko herritar izango direnei laguntzeko aukerak sortu beharko ditu hezkuntzak.

Badirudi hezkuntzaren eta gizartearen arteko binomio historikoa inoiz baino garrantzitsuagoa dela. Aspaldi adierazi zen gizarte eredu berri batera aldatzeko giltza hezkuntza prozesuetan dagoela eta bien arteko elkarrekintza ezinbestekoa dela.

Hezkuntzaren helburuetako bat zera da: etorkizuneko ikasleek beharko dituzten gaitasunak garatzeko espazioak eta denborak eraikitzea. Digitalizazioaren eraginez, ordea, oso aldakorra bihurtu da orain arte estatikoa izan den ikastearen kontzeptua.

Testuinguru horretan, garrantzi berezia hartu dute adimen artifizialak eta big data, bai eta horiek susta dezaketen hezkuntza pertsonalizatuak ere. Azken egitasmo gisa, proiektu honetan, ibilbide horri heltzen ahaleginduko gara: gizartetik hasi, eta etorkizuneko hezkuntza eragina izan dezaketen baliabideen azterketa sailkatuz.

Hainbaten ustez, irakaspraktikak teknologiararen beharra du eta orain da teknologiak eta hezkuntzak, ikuspuntu kritiko batetik, bat egiteko unea. Ikuspuntu kritiko hori, besteak beste, ezagutzak dakar, Amaia Arroyoren iritziz; «ulertu behar dugu teknologia ez dela neutroa eta gu behar gaituela (gure balioak, gure ideiak, gure jakintza) gizartearen garapena osasuntsua eta etikoa izan dadin. Hortik dator ikuspegi kritikoaren beharra».

Teknologiak aukerak eskaintzen dizkigu, bai, baina arriskuak ere hor daude. Esaterako, arriskuen aurrean araudiak, jokabideak eta esku-hartzeak nolakoak izan daitezkeen ezagutu behar dugu; gertatu aurretik saihesteko edota gertatzean esku hartzeko. Arriskuei buruzko informazioa izatea behar-beharrezkoa da; baina aukeren inguruko informazioa ere oso garrantzitsua dela deritzogu. Izan ere, teknologiararen ikuspegi positiboa landu nahi dugu ikastolaren proiektuan.

Gaur egun teknologia-erabilerarako testuinguru pedagogikoak zein diren, konpetentzia digitalak zer diren, e-learning testuinguruetarako oinarriak zeintzuk diren, hezkuntza digitalerako baliagarri diren hainbat tresna eta aplikazioren berri, teknologiak jendartean eta hezkuntza duen eragina, hezkuntza i(r)a-kaskuntzaren eta teknologiararen arteko loturak eta berrikuntzak zein ikerketa digitalen ingurukoak bildu daitezke. Askotariko gaiak, beti ere ikuspuntu pedagogikoa ipar hartuta.

Adituen ustez, irakaspraktikak teknologiararen beharra du eta orain da teknologiak eta hezkuntzak, ikuspuntu kritiko batetik, bat egiteko unea. Teknologiak berrikuntza ekarri behar dio hezkuntzari, batetik, ikaskuntza egin beharreko atazak lagunduz edo hobetuz, hots, aurrez aurreko ikaskuntzako kalitatea hobetuz eta, bestetik, ikaskuntzari balio erantsia emanez; hau da, testuinguru digitalean zentzu handiagoa duten atazak eta metodoak bultzatuz.

Baina nola garatuko dugu ikuspuntu kritiko hori, euskal jendartean dauden arazoak aztertu eta horietako zenbait gabezia bete

gabe, nazioartean egiten ari direna kontuan izan gabe? Galdera horiei erantzuteko, ezaugarri hauek izango lituzkeen hezkuntza irudikatu behar dugu etorkizun handiko egitasmo honen hasiera honetan, online irakaskuntza eta baliabide digitalak ere kontuan hartuz: inklusioa, ubikuotasuna, ikasmaterialen aniztasuna eta moldagarritasuna, arreta pertsonalizatua eta euskal curriculumak implementatzeko aukera, besteak beste. Eta jakina, teknologiak dituen aukerak aipatzeaz gain, berekin dakartzan arriskuak ere kontuan izan beharko ditugu.

Eta amaitzeko, ez dezagun ahaztu "IKTak eta konpetentzia digitalak hezkuntzan" proiektua mardula izan arren, hezkuntza komunitatean partekatua eta, horregatik, irakurterraza izan behar duela. Hauxe bere beste erronka deigarria da, bere horretan.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Planaren garapena Ikastolen Elkarrekin izendatutako mentore talde batek gidatuta garatuko da. Gure mentorea, gure digitalizazio barzordearekin elkarlanean jardungo du eta bere gidaritzapean ibiliko gara.

Gure digitalizazio batzordeari dagokionean, buru bezala eta mentorearekiko kontaktu zuzen moduan, zuzendaritza taldeko kide den IKT arduraduna izango da, Jon Aizpurua. IKT arduradunak zuzendaritzan aurkeztuko du mentoreak helarazitako informazioa eta zuzendaritzak informazio hau zabalduko du Ikastola osoan. Modu honetan, IKT arduraduna, proiektuaren dinamizatzailer eta bultzatzaile izango da Ikastolan zuzendaritza talde osoaren ardura izan arren proiektuaren garapena eta inplementazioa.

Hau planifikatzeko mentoreak eskainitako laguntza eta egutegiarekin honako prozesua garatuko dugu:

1 - Egoeraren argazkia:

Azaroa bitarte "Selfie for School" trena bitartekotzat hartuta, Ikastolaren errealitatearen argazki bat lortuko dugu, ondoren ausnarketarako baliagarri izango zaiguna. Horretarako, galdetegia, zuzendaritza, irakasle eta ikasleei helaraziko zaie. Ondorio gisa, Ikastolak, etapa bakoitzaren txosten bat lortuko du.

2 - Analisia:

Ondoren, eta urtea amaitu bitarte, txostenen analisiari ekinog zaio. Zuzendaritzak txostenak aztertu eta elementu esangurantsuenak identifikatu eta bertan nabarmentzen diren elementuak ikertuko ditu. Azkenik, etapa bakoitzeko ondorio eta laburpenak hartuta AMIA bat osatuko da ondorioak zehaztu eta helburuak finkatzen laguntzeko.

3 - Helburuak

Urtarrila eta otsailean, zuzendaritzak, AMIA baliatuz, Ikastolaren Plan Digitalean ezarriko diren helburuak zehaztu eta adostuko ditu. Helburu hauek, beti ere, 2 urteko epean betetzeko modukoak izango dira eta modu errealista batean finkatuko dira.

4 - Ekintzak

Otsaila eta martxoa bitartean, zuzendaritza taldeak, zehaztutako helburuak eskuratu ahal izateko aurrera eraman beharreko ekintzak zeintzuk diren finkatuko ditu. Ekintza horiek SMART metodologiaren logikaren barnean garatuko dira eta zein epetan garatuko diren eta jarraipena nola egingo den ere finkatuko da.

5 - Dokumentuaren garapena

Apirila eta maiatza bitartean, dokumentuaren idazketari ekingo zaio, eskeinitako txostenaren baitan. Horrela ekainean aplikatibora igo ahal izateko.

6 - Publikatzea

Ekainaren 16a baino lehenago, digitalizazio batzordeak, IPDa aplikatibora igoko du.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Proiektu digitala ikastolaren hezkuntza proiektuarekin bat etorriko da eta ikastolaren kudeaketa planean integratuta egongo da. Ikastolaren kudeaketa, plan estrategikoan oinarritzen da eta hori urteko planetara hedatzen da.

Proiektu digitalak azken bi atal hauetan bere zatia izango du, non plan estrategikotik urteko planera hedatzen diren helburuak zehaztuta izango dituen. Proiektu digitalean definitzen diren helburu eta ekintzak plan hauetan integratuko dira, epe ertainekoak plan estrategikoan eta epe motzekoak (urtebetekoak) urtez-urteko planetan agertuko dira.

Proiektu digitalaren jarraipena urteko planean egingo da eta horrek erakutsiko digu bertan zehazten diren helburuak betetzen diren. Proiektu digitaleko helburuak betetzeak, bai urteko plana nola plan estrategikoaren betetze mailan eragingo du.

Urteko planak ikastola osoari eragiten dio eta zuzendaritzaren jarraipena eta ebaluazioa dauka, hala nola ikastola komunitate osoaren berrikuspena (artezkaritza, familiak, langileak eta ikasleak). Hortaz, proiektu digitalean definitutakoak jarraipen zehatza izango du komunitate osoaren bidez.

Hori horrela, ikastolako proiektu digitala erabat integratuta egongo da ikastolako kudeaketa testuinguru orokorrean.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Hauek dira LHn izan ditugun emaitzekin atera ditugun ondorioak. Orokorrean maila ertaineko balorazioak eta zenbaitetan altuak.

3tik behera baxuak (ahulguneak), 3-4 ertainak, 4tik gora altuak (indarguneak)

Lidergoaren atalean emaitza ertainak dira, bai zuzendaritza eta irakasleen iritziak antzekoak direla.

Altuenak: A2. Estrategia irakasleekin garatzea: 3,9.

Baxuenak: A1. Estrategia digitala: 3,5.

Kolaborazioa eta sareetan emaitzak erdi mailakoak dira.

Altuenak: B3. Elkarlana 4

Baxuenak: B1. Aurrerapenaren ebaluazioa, 3,1.

Azpiegitura eta ekipamenduak balorazio altua daukagu 7 puntutan. Indargunea izan daiteke. Bestalde, nabaria da puntuazio oso baxua duela C13. Nork bere gailua ekartzea puntuak, honek gaizki ulertua behar du, izan ere, LH6ko ikasleek euren gailuak ekartzen dituzte azken urteetan eta beraiekin lan egiten dute.

Altuenak: C8. Ikaskuntzarako gailu digitalak, 4,4

Baxuenak: C13. Nork bere gailua ekartzea 2.

Etengabeko prestakuntza profesionalean erdi mailakoak dira emaitzak.

Altuenak: D1. EPP beharrak, 3,1

Baxuenak: Bizipenak partekatzea, 3

Pedagogia: laguntza eta baliabideak atalean, erdi mailakoak dira orokorrean nahiz eta batzuk maila altukoak izan.

Altuenak: E4. Hezkuntza-komunitatearekin komunikazioa 4,2.

Baxuenak: E3. Ikaskuntzarako ingurune birtualak erabiltzea 3,8.

Pedagogia: ikasgelan aplikatzea, erdi mailakoak puntuaketa. Aipatzekoa, ikasleek oso altu baloratu dituztela F1 (4,2) eta F2 (4,3) puntuak.

Altuenak: F1. Ikasleen premietara egokitzea 3,9

Baxuenak: F6. Diziplinarteko proiektuak 3

Ebaluazio jarduketak, irakasleen balorazioa erdi mailakoa da, bai zuzendaritzaren partetik, baita irakasleen aldetik ere.

Altuenak: G7. Ebaluazio digitala 3.5

Baxuenak: G10. Ikastetxetik kanpo garatutako gaitasun digitalak 3

Ikasleen kompetentzia digitalak, maila altuko 3 eremu ditugu, orokorrean maila ertaina.

Altuenak: H3. Portaera arduratsua 4.1

Baxuenak: H10. Arlo ezberdinetarako trebetasun digitalak 3.5

Hauek dira DBHn izan ditugun emaitzekin atera ditugun ondorioak. Orokorrean LHn baina emaitza hobeak izan ditugu.

Lidergoaren atalean emaitza ertainak dira, aldiz, Irakaskuntza digitala aztertzeiko denboran emaitza baxua dugu bai zuzendaritza eta baita irakasleen partetik ere.

Altuenak: A3. Irakaskuntzako modalitate berriak: 4.

Baxuenak: A4. Irakaskuntza digitala aztertzeiko denbora: 2,5.

Kolaborazioa eta sareetan emaitzak erdi mailakoak dira.

Altuenak: B3. Elkarlana 4

Baxuenak: B1. Aurrerapenaren ebaluazioa, 3,3.

Azpiegitura eta ekipamenduak balorazio altua daukagu. Indargunea da zalantzarik gabe. Dena den, interneterako sarbidean emaitza oso txarra izan dugu eta ahulgune nabaria da.

Altuenak: C8. Ikaskuntzarako gailu digitalak, 4,6

Baxuenak: C3. Interneterako sarbidea 2,8.

Etengabeko prestakuntza profesionalean erdi mailakoak dira emaitzak.

Altuenak: D2. EPP-n parte hartzea, 3,6

Baxuenak: D1. EPP beharrak, 3

Pedagogia: laguntza eta baliabideak atalean, erdi mailakoak dira orokorrean nahiz eta batzuk maila altukoak izan, indargune bat izand aiteke.

Altuenak: E4. Hezkuntza-komunitatearekin komunikazioa 4,7.

Baxuenak: E3. Ikaskuntzarako ingurune birtualak erabiltzea 3,8.

Pedagogia: ikasgelan aplikatzea, erdi mailakoak puntuaketa orokorrean.

Altuenak: F6. Diziplinarteko proiektuak 4,2

Baxuenak: F4. Ikasleen inklusioa 3,5

Ebaluazio jarduketak, irakasleen balorazioa erdi mailakoa da, baina zuzendaritzak altuago puntuatu ditu.

Altuenak: G9. Datuak erabiltzea ikaskuntza hobetzeko 4,1

Baxuenak: G10. Ikastetxetik kanpo garatutako gaitasunak 3

Ikasleen konpetentzia digitalak maila ertaina.

Altuenak: H7. Eduki digitalak sortzea 3,9

Baxuenak: H1. Portaera segurua 3.3

Orokorrean maila altuko edo ertaineko balorazioak jaso ditugu bai LHn eta baita DBHn ere. Puntu bakarra atera dugu maila baxukoa, LHn, eta aurrez aipatu bezala, galdera gaizki ulertu delakoan gaude. Gainerakoan, eta puntu konkretu batzuk kenduta, zuzendaritza, irakasleria eta ikasleriaren artean nahiko erantzun homegeneoak izan ditugu.

Desadostasun nabariena etapen artean, C3. Interneterako sarbidean dugu. Atzemana dugun arazo bati egiten dio erreferentzia eta honek, batez ere, DBHn izan du eragina. Diferentzia horren erantzule zuzena kasuistika konkretu hau dela ziur gaude.

AMIA analisia
Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)
Interneteko sarbidea hobetu behar dugula argi dago.
Ikasleen konpetentzia digitalak garatzen laguntzeko irakasleek prestakuntza gehiago behar dutela dirudi.
Barne komunikazio arazoak ditugu, mezu batzuk ez dira behar bezala zabaldu selfiean ikusi den bezala.

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)
Egoera ekonomikoa gero eta larriagoa eta horrek digitalizazio planari egin diezaioken kaltea.
Kezkak sortzen ditu hainbat irakasle eta gurasorengan ikasleek egiten duten gailuen erabilpenak eta honek izan ditzazken eraginak.
Teknologia munduan izaten ari diren aldaketetara ongi egokitzeko prest ez izateak dakartzan kalteak.

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)
Irakasle guztiek beraien gailuak dituzte eta erabat barneratuta euren eguneroko lanean.
Azpiegitura egokia orokorrean: gailuak, ikasgeletako instalakuntzak, besteak beste.
Hezkuntza komunitatearekin komunikazioa oso ongi baloratuta dago.
Teknologiaren erabilera nahiko hedatuta dago ebaluazio prozesuetan.
IKT mintegi bat antolatu dugu beharrak detektatu eta jarraipen talde bat izan dezan ikastolak

Aukerak (kanpo-faktoreak)
Europak Next Generation funtsen bitartez digitalizazioan aurreratzeko eskaini duena.
Digitalizazio plana Europako markoaren baitakoa izatea.
Digiprest ikastaroaz baliatzea irakasleen konpetentzia digitalaren zertifikazioak lortzeko.
Software librerako norantzan alternatiba berriak topatzea.

Autoebaluazioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu **aukerak** areagotzeko

Azpiegituretan ditugun gabeziak Next Gen funtsak erabiliz indrtu ditugu. Lehendik inbertsiok egin izan baditugu ere

Nahiz eta azpiegitura egokia izan, Next Gen funtsak erabili daitezke ekipamenduak berritzeko eta falta diren etapetan txertatzeko.

Estrategia digitala egokia izan arren, digitalizazio planaren garapenak horretan ere lagunduko du.

Teknologiaren erabilera hedatuta badago ere, irakasleen prestakuntzaz baliatuta akreditazio ofiziala lortu daiteke.

Ahuleziei aurre egin **aukerak** aprobetxatzeko

Irakasleek egin duten prestakuntzak beraien gaitasun eta konpetentzia digitalak nabarmen hoetu dituztenez gure arteko elkarlana, metodologia eta materialaren prestakuntza hobetzeko aukera aprobetxatu behar dugu.

Sarean eta bere segurtasunean ahuleziak atzeman ditugu selfieari esker eta inbertsio baten beharra azaleratu da.

Indarguneak optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko

Plan Digitala 2.0 dokumentua 2025 urterarte onartua genuen arren egia da gainditu zamarra genuela eta hura berritu, eguneratu eta berraktibatzeko interesgarria da.

Azpiegituretan egin behar dugun eta egiten ari garen inbertsioa modu kontrolatuan eta hausnartuan egiteko posizioan jarri gaitu, etor litezkeen erronkei aurre harturik eta aurrekontu aldetik lotuta utzi dugu datorren urteetarako partidak aurreikusita.

Ahuleziei eta **mehatxuei** aurre egin

Egoera ekonomiko larriak, behar den denbora edo liberazioak eskaintzeko zailtasunak eman ditzake, digitalizazio prozesuetan laguntzeko.

Matrikulazioaren beherakadak ikasgelen eta eraikinen berrantolaketa ekar lezake eta honek, era berean, IKT beharren eta azpiegituren egoera aldatu. Baliteke berrantolaketa eta berdimentsionatzeak egin behar izatea etorkizunean.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua

Ikastolak IKTen inguruan dituen politikak zehaztu, eztabaidatu, onartu eta argi komunikatzea langileei.

Deskriptorea	Epea
LG 3.7 Agerikoa da politika eta norabidea gainbegiratzen direla	2024/06/30

Adierazlea	Mota	Helmuga
Politikak eta arauak idatzi	Ehunekotan	70
Zuzendaritzari aurkeztu	Bai/Ez	Ez
Onartutako politika eta arauak langile atarian zintzilikatu	Bai/Ez	Ez

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Egun dugun egoera aztertu eta beharrak identifikatu.	IKT mintegia Zuzendaritza taldearen bilera Ohiko problematikaren azterketa	IKT mintegia Zuzendaritza nagusia	2024/06/30	Prozesuan (%80-99)
Ikastolaren azpiegitura eta baliabide digitalak modu egokian eta ziurrean erabili ahal izateko politikak edo arauak idatzi eta proposatu.	IKT mintegiaren bilerak Zuzendaritza taldearen bilerak	IKT arduraduna Zuzendaritza nagusia	2024/06/30	Prozesuan (%40-59)
IKT mintegiak zuzendaritzari politikak eta arauak proposatu eta aurkeztu.	Bilera gela Proiektorea	IKT arduraduna Zuzendaritza	2024/06/30	Prozesuan (%40-59)
Onartu diren politikak klaustroetan zabaltu eta azaltzea	IKT arduraduna emaila Bilera gelak Webguneko langile-ataria	IKT arduraduna Etapak koordinatzaileak	2024/06/30	Prozesuan (%40-59)

II Irakaskuntza eta ikaskuntza

Helburua

Deskriptorea

Epea

II 2.3 Ikasleentzat rol berriak aurreikusten dira

Adierazlea

Mota

Helmuga

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

GP Garapen profesionala

Helburua

Irakasleen %80 digiprest-erako bidean lagundu, talde saio bitartez.

Deskriptorea

GP 1.5 EGP egiaztatu/ziurtatuak lortzeko aukerak sustatzen dira

Epea

2023/06/30

Adierazlea

GP 1.5 A1 Irakasleei Prestgara, INTEF eta beste erakundetako ikastaroak egitera animatzen zaie.

Mota

Ehunekotan

Helmuga

100

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
DIGIPREST prestakuntza-ikastaroen buruzko informazioa zabaltzea	Zuzendaritza bilerak	IKT mintegia Pedagogia zuzendaria	2023/06/16	Egina
Taldeko saioak irakasleekin	- Bilera gelak - Proiektoreak - Internet - Saioka	Ziklo koordinatzaileak IKT mintegia	2023/06/16	Prozesuan (%80-99)
Ikastaroen jarraipena	• Saioka • Mentorearekin harremana	IKT arduraduna Pedagogia zuzendaria	2023/06/16	Prozesuan (%80-99)
Ikastaroaren lehen fasea itxitzat eman	Klaustroak IKT mintegiko kideak	IKT mintegia IKT arduraduna	2023/06/30	Detektatua
Irakasle berrien eta bakan zeudenen prozesua abiarazi	Klaustroak IKT mintegia Saioka	IKT arduraduna Pedagogia zuzendaria	2023/09/30	Detektatua
Taldeko saioak irakasleekin	- Bilera gelak - Proiektoreak - Internet - Saioka	Ziklo koordinatzaileak IKT mintegia	2024/06/30	Detektatua
Ikastaroen jarraipena	• Saioka • Mentorearekin harremana	IKT arduraduna Pedagogia zuzendaria	2024/06/30	Detektatua
A2 mailako ikastaroak amaitutzat eman	Klaustroak IKT mintegiko kideak	IKT mintegia IKT arduraduna	2024/05/31	Detektatua

Helburua

Irakasleen %50ak B1 mailako ikastaroa gainditzea

Deskriptorea

GP 1.5 EGP egiaztatu/ziurtatuak lortzeko aukerak sustatzen dira

Epea

2025/06/30

Adierazlea

GP 1.5 A1 Irakasleei Prestgara, INTEF eta beste erakundetako ikastaroak egitera animatzen zaie.

%50ak B1 titulazioa erdietsi du

Mota

Ehunekotan

Bai/Ez

Helmuga

0

Ez

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
----------	-------------	-------------	------	--------

Prestakuntza-ikastaroei buruzko informazioa zabaltzea	Zuzendaritza bilerak			
	Klaustroak	IKT arduraduna	2023/10/31	Hasita (%1-19)
	IKT mintegia			
Ikastaroa egiteko salbuetxiak izango diren irakasleen profila osatu eta zerrenda proposatu zuzendaritzan	Inika			
	Bilera gelak	IKT mintegia	2023/09/30	Detektatua
	Ordenagailua			
	Proiektorea			
Ikastaroen jarraipena	• Saioka	IKT arduraduna	2024/06/30	Detektatua
	• Mentorearekin harremana	Pedagogia zuzendaria		
Ikastaroa itxitzat eman	Klaustroak	IKT mintegia	2025/06/30	Detektatua
	IKT mintegiko kideak	IKT arduraduna		

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua

Deskriptorea

Epea

EJ 1.2 Ebaluazio batutzailea dibertsifikatzen da

Adierazlea

Mota

Helmuga

Zenbakizkoa

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

EC Edukiak eta curriculum

Helburua

Deskriptorea

Epea

EC 1.1 Irakasleek eta ikasleek sortzen dute edukia

Adierazlea

Mota

Helmuga

Ehunekotan

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

EN Elkarlana eta networking-a

Helburua

Deskriptorea

Epea

EN 1.1 Ohikoa da pertsonalak sarean lankidetzan jardutea ezagutza adituak bateratzeko eta edukiak partekatzeko

Adierazlea

Mota

Helmuga

Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera

AZ Azpiegiturak

Helburua

Sareen infrastrukturak hobetzea, berrantolatzea eta eguneratzea

Deskriptorea		Epea
AZ 1.1 Ikaskuntza-ingurune fisikoek optimizatu egiten dituzte aro digitaleko ikaskuntzaren aukerak		2024/01/01
Adierazlea	Mota	Helmuga
Wifi sarearen egungo egoeraren azterketa egin	Bai/Ez	Bai
Aurrekontuak aztertu eta bat onartu	Bai/Ez	Bai
AP berrien instalazioa egin	Bai/Ez	Bai
WLAN berriak konfiguratu	Ehunekotan	50

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Sarearen arazoaen azterketa egin eta erabiltzaileei galdetu dituzten behar eta arazoen inguruan	IKT mintegia Klaustroak Zuzendaritza bilerak Bilera gela Emaila Galdetegia	IKT mintegia	2023/01/31	Egina
Ikastolako WiFiak dituen gune beltzak detektatu	Ordenagailuak Internet	IKT arduraduna Duok	2023/03/01	Egina
Hornitzaileekin azterketa elkarbanatu eta aurrekontuak eskatu	Bilera gela Telefonia Emaila	IKT arduraduna Duok	2023/03/03	Egina
Zuzendaritzan aurrekontua aurkeztu eta onartu	Bilera gela Zuzendaritza Proiektorea Emaila	IKT Arduraduna	2023/03/15	Egina
Instalazio berria erosi eta egin	Eskailerak Erremintak Switch POEak Ethernet kableak Ordenagailuak	IKT arduraduna Mantenu arduraduna	2023/04/15	Egina
Kontroladore berriak konfiguratu	Zerbitzaria Internet Ruckus lizentziak	DUOK	2023/09/30	Prozesuan (%80-99)

WLAN berriak antolatu	Zerbitzaria	IKT arduraduna Duok	2024/06/30	Prozesuan (%40-59)
	Kontroladoreak			
	Internet			
	Duok			
	Ruckus APak			

Helburua		
Sarearen abiadura handiagotu 1Gbetik 4Gbera.		
Deskriptorea	Epea	
AZ 1.1 Ikaskuntza-ingurune fisikoek optimizatu egiten dituzte aro digitaleko ikaskuntzaren aukerak	2024/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
Kontratua aldatu Movistarrekin	Bai/Ez	Bai
Gure ekipoak aldatu eta konfiguratu 4Gb-i probetxua ateratzeko	Ehunekotan	80

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Movistarreko komertzialarekin kontaktuan jarri	Bilera gela Telefonoa	IKT arduraduna	2023/06/30	Egina
Kontratua aldatu Movistarrekin. Egun dugun 1Gbetik 4Gbera pasatzeko, horretarako, firewalla aldatzea ere beharrezkoa da irteeran enbudorik ez izateko.	Zuntz eskaintzan aldaketak daude Movistarreko teknikaria Firewall berria	IKT arduraduna	2024/06/30	Prozesuan (%80-99)

Helburua		
Sarearen segurtasuna handiagotu Firewall berri bati eta sarearen segmentazioari esker		
Deskriptorea	Epea	
AZ 1.1 Ikaskuntza-ingurune fisikoek optimizatu egiten dituzte aro digitaleko ikaskuntzaren aukerak	2024/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
Aurrekontuak eskatu eta bat onartu	Bai/Ez	Bai
Firewall berria erosi eta instalatu	Bai/Ez	Bai
VPN erabiltzaileak konfiguratu	Ehunekotan	75
Sarea Segmentatu	Ehunekotan	0

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
----------	-------------	-------------	------	--------

Bilerak hornitzaileekin ditugun gabeziak aztertu eta aurrekontuak eskatzeko	Bilera gela Internet Telefonoa Hornitzaile sarea	IKT arduraduna	2022/11/30	Egina
Aurrekontuak baloratu eta onartu.	Bilera gela IKT mintegia	IKT arduraduna Gerentea	2022/12/15	Egina
Hornitzailearekin egutegia adostu	Bilera gela Telefonoa	IKT arduraduna	2022/12/20	Egina
Firewall berria erosiko da segurtasunean ditugun hutsuneak betetzeko.	Zerbitzari gela Sophos Firewall berria Duok	IKT arduraduna Duok	2024/06/30	Prozesuan (%80-99)
Firewall berriak VPN sarbide segurua, gure konexioak azkartu eta kontrol handiago lortzen lagunduko digu.	Zerbitzari gela Sophos Firewall-a MS authenticator Duok	IKT arduraduna Duok	2024/06/30	Prozesuan (%80-99)
Sarea segmentatu	Switchak Internet Duok	IKT arduraduna Duok	2024/06/30	Detektatua

Helburua
IKT eta mantenuko intzidentziak kudeatzeko Helpdesk bat abian jartzea. Komunikazio arazoak ekiditeko eta lanen kudeaketa egokia bermatzeko ticketing sistema baten bidez lankideei sarbide neurtua duen eta jarraipena egiten lagunduko dien sistema bat hautatu eta inplantatzea.

Deskriptorea	Epea
Helpdesk baten inplementazioa	2024/06/30

Adierazlea	Mota	Helmuga
Zerbitzaria prestatu eta erremintak instalatu	Bai/Ez	Bai
Klaustroetan zabaldu metodologia berria	Bai/Ez	Bai
Langile atarian estekak aktibatu	Bai/Ez	Bai
Erremintaren erabilera egokia denaren balorazioa egin	Bai/Ez	Ez

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Sistema ezberdinen ebaluazioa eta alternatiben azterketa	IKT mintegia AMIAk	IKT mintegia	2023/01/31	Egina
Zerbitzariaren instalakuntza	Zerbitzari birtualizatua Debian 9.0 GLPI	IKT arduraduna Duok	2023/04/30	Egina
GLPI konfiguratu eta prestatu lan eremurako	GLPI Zerbitzaria Apache MariaDB IKT arduraduna Active Directory	IKT arduraduna	2023/04/30	Egina
Lankideei erabilera azaldu eta formakuntza eman	Klaustroak Proiektoreak Chromebookak	IKT arduraduna	2023/04/30	Egina
Langile atarian estekak eskura jarri langileei	webgunea Ordenagailua	Komunikazio arduraduna	2023/06/30	Prozesuan (%40-59)
Erabilera egokia kontrolatu eta bertatik bideratzen diren intzidentzien kontrola egin	GLPI IKT mintegia	IKT arduraduna Zuzendaritza	2023/12/31	Detektatua



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	Ikastolak IKTen inguruan dituen politikak zehaztu, eztabaidatu, onartu eta argi komunikatzea langileei.	2024ko ekaina	- Egun dugun egoera aztertu eta beharrak identifikatzeko IKT mintegia bildu eta zerrendatu egingo ditugu detektatutako gabeziak. - Politikak eta arauak idatziko dira eta zuzendaritzan aurkeztu eta onartu. -Klastroak deitu eta azalpenak eman. - Langile atarian zintzilikatuko ditugu onarturiko agiriak.	IKT arduradunak	Prozesuan (%40-59)	
II						
GP	Irakasleen %80 digiprest-erako bidean lagundu, talde saio bitartez.	2024ko ekaina 2025eko ekaina	• Irakasleei jakinarazitako prestakuntza-txostenen eta -proposamenen kopurua zenbatuta. • Irakasleek egindako prestakuntza egiaztatuen kopurua zenbatuz • Erasmus proiektuaren mugikortasun-deialdietan irakasle kopurua zenbatuz.	Zuzendaritza taldeak	Prozesuan (%60-79)	DIGIPREST prestakuntza-ikastaroei buruzko informazioa zabaltzea Ikastaroen jarraipena

GP	Irakasleen %50ak B1 mailako ikastaroa gainditzea	2025eko ekaina	•Ikastolak hala erabakitako baldintzen baitan ikastaroa egitera gonbidatuko diren irakasleen zerrenda osatuta •Irakasle hauen erabiltzaileei Saiokan alta emanda • Irakasleek egindako prestakuntza egiaztatuaren kopurua zenbatuz • Erasmus proiektuaren mugikortasun-deialdietan irakasle kopurua zenbatuz.	Zuzendaritza taldeak	Detektatua	
EJ						
EC						
EN						
AZ	Sareen infrastrukturak hobetzea, berrantolatzea eta eguneratzea	2024eko ekaina	• Beharrezko gailuen erosketak eginda eta hauen fakturekin. • APen banaketa efizienteagoa aurkezten duen planoaren bidez. • Gailu berriak konfiguratuta eta prest ditugunean aurreko gailuak erretiratuta. • WLAN berrien pasahitz eta SSIDak aldatuz eta berriak lankideei eta ikasleei konfiguratuta prest utziaz. • Hornitzailearen fakturak izango ditugu. • Abiadura testak egingo ditugu alea neurtzeko	IKT arduradunak	Prozesuan (%40-59)	
AZ	Sarearen abiadura handiagotu 1Gbetik 4Gbera.	2024eko ekaina		IKT arduradunak	Prozesuan (%80-99)	

AZ	Sarearen segurtasuna handiagotu Firewall berri bati eta sarearen segmentazioari esker	2024eko ekaina	• Hornitzailearen fakturak izango ditugu. • Gailu zaharrak eta gaur egun beharrezko ez zaizkigunak erretiratuko ditugu. • Sarearen segmentazioan egin diren konfigurazio aldaketak ziurtatzeko hornitzailearen agiriak izango ditugu. • VPNa konfiguratu zaien pertsonen zerredarekin.	IKT arduradunak	Prozesuan (%40-59)	
IB	IKT eta mantenuko intzidentziak kudeatzeko Helpdesk bat abian jartzea. Komunikazio arazoak ekiditeko eta lanen kudeaketa egokia bermatzeko ticketing sistema baten bidez lankideei sarbide neurtua duen eta jarraipena egiten lagunduko dien sistema bat hautatu eta inplantatzea.	2023eko abendua	• Zerbitzari bat izango dugu gure sarean honetarako zeinetan GLPI bat instalatu eta martxan jarria izango den • Langile atarian loturak izanez. • Langile guztiei sarbidea emanez. • Urteko intzidentzien zerrenda eta estatistikak erakutsiz.	IKT arduradunak Zuzendaritza taldeak Komunikazio arduraduna	Prozesuan (%60-79)	